

2012 Urteko Txostena



Irizar

lighting the road

Zuzendari Nagusiaren Mezua

Sendotasunaz eta hazkundeaz

Ingurune ekonomiko zail honen barruan, niretzat oso pozgarria da gure Taldearen "Sendotasunaz eta hazkundeaz" hitz egiten jarraitu ahal izatea.

Nire ustez, izan dugun hazkundera ondoen azaltzen duen faktorerik garrantzitsuena, lanari lotutako beste faktore batzuk ahaztu gabe, arlo geografikoan nahiz industrialean egindako dibertsifikazioa izan da.

2009an ez bezala, orain eragiten ari zaigun krisia, hau da, gure jarduera, prezioak eta marjinak estuarazten dituen krisia, ez da krisi globala. 2011. urtearen erdialdetik aurrera merkatuek izandako beheranzko joerak bere horretan jarraitu du 2012. urtean, baina Europan baino ez da gertatu, eta are nabarmenago, herrialde periferikoetan.

Egitate bat da gure negozioak sendotzen eta hazten ari direla atzerrian. Izan ere, negozio horiek gero eta zati handiagoa hartzen dute gure fakturazioan eta, gauden lekuetan aberastasuna eta enplegua sortzeaz gainera, matrizean ditugun enpleguak ziurtatzeko aukera ematen digute.

Illo horretan, oso inportantea izan da Irizar markako autokar integralen gama europar merkatuan jarri izana. 2012. urtean zazpi herrialdetan dabilzan 100 unitate baino gehiago saldu ditugu.

500 milioi euroko fakturazio errekor batekin, gure Taldea gai izan da, Europan eta, batez ere, herrialde periferikoetan krisiak okerrera egin arren, aurreko urteko errekorreko produkzio bolumenak gainditzeko.

Beste urte batez, hori gertatu da Europan salmentek gora egin dutelako, atzerriko planten bolumena hazi egin delako eta azken urteotan Taldean sartu diren enpresak handitu egin direlako. Hiru faktore horiek, hain zuzen ere, Espainian eta Mediterraneoko beste herrialde batzuetan salmentek izan duten beherakada konpentsatu dute.

Era berean, gure emaitzetan eta Taldearen sendotasunean erabakigarriak izan dira, batetik, marka indartzea eta, bestetik, Taldeko negozio guztietan bezeroak leialtzea, gero eta hurbilagoa den harreman baten bidez bezero horiei behar dituzten produktuak

eta zerbitzuak emateko.

Ezagutzari eta teknologiarri eskaintzen dizkiegun ahaleginak gero eta handiagoak dira. Karrozeriagile izatetik autokar osoak -bai autokar integralak bai autobus elektrikoak- fabrikatzera pasatu izanaren ondorioz, jauzi handia izan dugu gure behar teknologikoetan.

Hori dela eta, bereziki produktu gama horretan Taldearen ezagutza eta garapen teknologikoa indartzeko, gure Taldea garatzeko giltzarria izango den I+Gko zentro bat sortu dugu.

"Creatio", Irizarren teknologia eta berrikuntza zentroa, Taldeak ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoan dituen gaitasunak indartzeko sortu da. Creatioren helburua berrikuntza epe luzerako ikuspegiarekin lantzea da, Taldearen etorkizuneko lehiakortasun iraunkorraren hobekuntzan eta gure jarduera alorretan aberastasuna eta enplegua sortzen dituen hazkundera pentsatuz.

Nabarmendu nahi dut Taldearen etorkizunerako garrantzi handikoa izango dela %100 elektrikoa izango den autobusaren proiektua, izan ere, orain proiektu horretan murgilduta gaude eta emaitza 2014an ikusiko da, lehen unitateak zirkulatzen jartzen direnean.

Hori beste urrats bat izango da, garrantzi handikoa, Taldearen markaren, lehiakortasun iraunkorraren eta sendotasunaren aldeko apustuan.

2012. urte honetan Autobusaren eta Autokarraren Nazioarteko Azokan aurkeztutako irudi korporatibo berria, hain zuzen, Irizarrek etorkizunaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren bidean egindako urrats horien erakusgarria da.

Azkenik, eta beti bezala, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei gudan jartzen duten konfiantzagatik, eta baita Irizarreko pertsona eta laguntzaile guztiei ere, behar izan denean beti hor egoteagatik, prest.

Jose Manuel Orcasitas
Irizar Taldearen Zuzendaria

Irizar zenbakitan







Irizar Taldeak, berriz ere, 500 milioi euro baino gehiagoko fakturazioarekin itxi du 2012ko ekitaldia. Oraingoan ere, nabarmendu behar da fakturazio hori gure nazioartekotze maila altuari eta dibertsifikazio industrialari zor zaizkiola.

Fakturazio osoaren %18 bakarrik dagokio barne merkatuari. Dagoeneko, fakturazioaren %82 esportazioko merkatuei dagokie, Espainian nahiz atzerriko lantegietan fabrikatutako produktuen esportazioei esker.

Gure ustez, bizi garen ingurune ekonomikoan, Taldearen hazkundea Irizar markaren sendotasunaren eta bezeroek gudan jartzen duten konfiantzaren ondorioa da. Horrenbestez, Irizar munduko erreferentzia nagusietakoa bihurtzen ari da goi gamako autobusen eta autokarren fabrikazioan.

Guztira ia 5.000 autokar ekoitzi dira, eta horien bostena Gipuzkoako lantegian fabrikatu dira, Espainia eta Europa helburu, batez ere.



Hazkunde globala

Irizar munduan

Europar, non agertoki ekonomikoa oraindik ere oso zaila den batez ere herrialde periferikoetan, Irizar markako 100 autokar integral baino gehiago merkaturatu dira. Helburu nagusiak Erresuma Batua eta Frantzia izan dira, baina Poloniako salmentak ere aipagarriak dira.

Bezeroengandik jasotako iritziak eta Europako hainbat aldizkarik egindako probak kontuan hartuta, esan dezakegu gure autokarra goi mailakoa eta fidagarritasun handikoa dela.

Gure Taldearen fakturazioaren ia erdia, %48 zehazki, atzerriko lantegietatik dator, nagusiki Mexiko, Brasil eta Marokotik, non %30etik gorako hazkundeak lortu ditugun.

Irizar Brasilen, 2010ean zehar jarduera mailak suspertuz joan ziren eta, 2011. urtean, egunean 3 luxuzko autokarreko produkzio erritmoari eutsi zitzaion. 2012an, berriz, beste jauzi bat egin eta egunean 3,5 autokar egiteko produkzio erritmoa finkatu da, hau da, orain artean planta horretan izandako jarduera mailarik altuena. Barne merkatuan izandako hazkundeaz gainera, garrantzi handia izan dute batez ere Txile eta Hegoafrikarako esportazioek. Brasilgo plantak bere produkzioaren %75 esportatzen du.

Irizar Mexikok, Brasilek bezala, eguneko 3,5 autokarreko mailaraino handitu du bere produkzio erritmoa; hala, urtean ia 800 autokar ekoiztera iristen da. Errekor berri horren oinarrian, gure firma herrialdeko bigarren operadore handiaren autobus hornitzaile bihurtu izana dago.

Dagoeneko, herrialdeko hiru operadore handienetako biren hornitzaileak gara eta, hori hala, Irizar mexikar merkatuko liderra da dudarik gabe, %60tik gorako merkatu kuotarekin.

Irizar Maroko dudarik gabeko liderra da oraindik herrialde horretako luxuzko merkatuan, ia %100era iristen den kuotarekin.

Magrebeko planta, Taldearentzat, hazteko gaitasun handiena duten planten arteko bat da.

Taldeko gainerako enpresek, hots, Hispacold, Masats, Jema eta Datikek fakturazio osoaren %16 ekarri diote aurten taldeari.

Jemaren filiala den Jema Electronica Taldeko gainerako enpresak goi teknologiako osagaiz hornitzen ibili da 2012an, horretarako sortu baitzen.

Datik, berriz, mexikar merkatuan sartzen ari da gure bezero nagusien bitartez.

Hispacold eta Masatsi dagokienez, bi-bion merkatu naturalen beherakada, hein handi batean, trenbide sektorerazuzenduta egindako dibertsifikazioari esker konpentsatu da.



Mugarri garrantzitsuak

Irizar, marka liderra UKn

Irizar marka liderra bihurtu da Erresuma Batuan, autokarren segmentuan, eta %20tik gorako kuota lortu du Scania txasisarekin hornitutako autokar konbentzionaletan eta autokar integralen linea berrian.

Guztira matrikulatu diren unitateen kopuruak erakusten duenez, salmentak %200 handitu dira aurreko urteko aldi berarekiko.

Arrakastaren arrazoa Irizarrek ingeles merkatuaren eskakizun eta berezitasunetara egokitzeko egindako apustu garbia da. Nabarmentzekoak dira merkatu horretarako modu esklusiboan egindako berrikuntzak eta garapenak, hala nola elbarrientzako plataforma Irizar i6 modeloaren aurreko atean; 2 ardatzeko Irizar i4a eskola garraiorako, 70 haurrentzako lekuarekin (3+2 aulkien layout-a), eta 10,8 metro luze den Irizar i6 berria, pisuari dagokionez hobekuntza nabarmena dakarrena, aulki kopurua handiagoa eta gasolio kontsumoa txikiagoa izateko.

Baltikoko herrialdeak eta Errusia

Mootors Grupp barruan dauden Sebe eta Lux Express Taldeek erositako luxuzko hogeitauko autokar Baltikoko herrialdeetan eta Errusia Iparraldean barrena dabilta (San Petersburgon). Tartu-Talin linean, Täistunni Express izenekoan, eguneroko konexio zerbitzuak betetzen dituzte, bai eta Baltikoko herrialdeetako hiri nagusiak eta San Petersburgoko artekoak ere.

Afrikako Nazioen Kopa Gabonen

Irizarrek Gabonen eta Ginean 2012ko urtarrilean eta otsailean jokatu zen Afrikako Nazioen Koparekin bat

egin zuen, Gabongo Gobernuari 20 autokar entregatu baitzizkion herrialdeko lehendakaria, FIFAko gonbidatua eta lehia parte hartu behar zuten selekzioak eramateko.

Luxuzko 20 autokarretatik bi herrialdeko lehendakariak esklusiboki erabiltzekoak ziren, eta, horregatik, behar zorrotzak eta estuak betetzeko, fabrikazioaren orduan pertsonalizazioa funtsezko alderdia izan zen.

Lehiaketa amaitu eta gero, ibilgailuak Gabongo operadore baten automobil ofizialen multzora gehitu ziren, Librevillen, hiri horretan eskaintzen dituen zerbitzuetarako.

Berritasunen hedapena nazioartean

Rio de Janeiro, Kielce, Bordele, Rimini, Madril eta Birmingham eszenatoki bikaina izan dira Irizarrek bere etorkizuneko ildo estrategikoak aurkezteko eta markaren irudia finkatzeko eta sendotzeko.

Expoibis - Rio de Janeiro (Brasil)

Irizar Brasilek eszenatoki hori aprobetxatu zuen i6 modeloko autokar berria ofizialki plazaratzeko, Brasilgo zein Hego Amerikako bezero, prensa espezializatu eta laguntzaileen aurrean.

TransExpo - Kielce (Polonia)

400 metro koadroko erakustoki batean bi autobus erakutsi ziren, Irizar i6 eta Irizar i4 modeloetakoak, bertsio integralen.



Mugarri garrantzitsuak

Autocar Expo - Bordeaux (Francia)

Irizar, Irizar Autocars bere banaketa enpresaren bitartez, sektoreko marka handien artean egon zen presente, produktu eta zerbitzurik onenak eskaintzeko. Markaren ikono handiak indartzeaz gain, gaur egun Irizar Autocars etxearen katalogoaren parte diren autokar integralen gama osoa erakutsi zen.

Bus & Turismo - Rimini (Italia)

Riminiko Bus & Turismo azoka turismoaren inguruan italiar merkatuan dagoen azoka nagusia da, eta saihestezinezko bihurtu da baita sektore turistikoan diharduten autobus enpresentzat ere. 1.000 m²-ko erakustoki batean Irizar Italiak autokar gama koloretsua hedatu du.

Fiaa - Madrid (España)

Irizarren stand-a, 2.000 metro koadro baino gehiagoko erakustoki batekin, bertaratuak konpainiaren etorkizuneraino eraman zituen esperientzia berei baten eszenatoki bikaina bihurtu zen; han zen, gainera, Irizar i3 autokarraren modelo berria, lehendik zegoen gama osatzera datorrena. Standa, gure marka bizitzeko agertoki ikusgarria bihurtu zen, non autokarrak harmonia bikainean elkartu baitziren teknologiarekin, elektronikarekin, telekomunikazioekin, aniztasunarekin, mugikortasunarekin eta ingurumen nahiz gizarte iraunkortasunarekin.

Euro Bus Expo - Birmingham (Reino Unido)

Orduko horretan Irizar i6 markako bi autokar jarri ziren, Irizar UKren 400 m²-ko erakustokian, eta ondo-ondoan.

Hedapena Europar

Irizar autokar integrala

Danimarka, Alemania, Suitza eta Austria izan dira lehenetsitako merkatuak Europako salmenta eta saldu ondoko zerbitzuen sarea ezartzen jarraitzeko.

Dagoeneko 100 ibilgailu baino gehiago fabrikatu dira, gaur egun 7 herrialdeetan dabilzanak, eta oso emaitza onak lortzen ari dira bezeroen gogobetetzeari dagokionez, bai produktuagatik bai zerbitzuagatik. Aldi berean, etorkizunean kaleratuz joango diren produktu integral berriak garatzen jarraitzen dugu.

Osagarriak dira, baina garbi ikusten dugu integraletarako gero eta joera handiagoa dagoela Europako herrialdeetan, baliteke horien abantaila tekniko eta zerbitzukoengatik. Abantailarik garrantzitsuenak dira mantentzen errazak direla, osagaiek kokapen ezin hobea dutela, pisu txikiagoa dutela eta kate zinematikoko eta karrozeriako sistema eta osagai gehienak Irizarren software berezi baten bitartez diagnostikatu daitezkeela.

Segurtasun aktiboan zein pasiboan dauden azken aurrerapenak dituzten autokarrak diseinatu eta fabrikatu hal izan ditugu. Autokar fidagarriak, erregai kontsumoa eta CO2 igorpenak minimizatzen dituztenak; autokar arinagoak, pisua eta banaketa optimizatu eta eserleku eta maletategien edukiera handiagoa dutenak.

Irizarrek egindako apustua argia da: Europa erdialde eta iparraldeko herrialdeetan handitzea, marka indartzea eta produktuei, powertrainari eta sistemei buruz ahalik eta gehien jakitea, gero eta lehiakorragoak eta bereziagoak izango diren kalitatezko ibilgailuak egiteko.

Dibertsifikazio industrialia

Jema



Jemak bere lehenengo filiala ireki du Estatu Batuetan Brasil

Jema Energy USAK bezeroengandik hurbil egotearen alde egiten du, haien beharren neurrira sortutako soluzio teknikoak eskainiz.

Sistema horiek hainbat hilabetez testatu dira nazioarteko laborategietan, eta agentzia baimendunek ziurtatzen dituzte.

Eguzki bihurgailuak merkaturatu dira bizitegiarako instalazioetarako

Jemak eguzki bihurgailuak garatu ditu bizitegiarako instalazioetarako. Sistema monofasikoak eta trifasikoak dira, sarrerako etaparen diseinu berritzailea eta eskusiboa dutenak. Gaur egun merkaturatzen daudenak baino txikiagoak eta fidagarriagoak dira, eta errendimendu energetiko handiagoa dute. Panel fotovoltaikoen errendimendua optimizatzeko bereziki diseinatutako sistemak dira. Instalatzen errazak, aldi berean ultra-isilak ere badira. Komunikazioak seriean integratuta daude.

Maiatzean, Jemak bere lehendabiziko kontratua izenpetu zuen Duro Felguera Brasil ingeniariarekin, Parnaibako Zentralerako Elikadura Kritikorako Sistemak hornitzeko. Instalazioa irekia da, eta gas turbina baten bidez 170 MW-eko potentzia nominal batekin lan egingo du.

Dibertsifikazio industrialia



Datik

Eraginkortasuna, segurtasuna eta erosotasuna irabaztea

MagicEye laguntzarako sistema teknologiko aurreratua da, distraitzeko eta talka egiteko arriskuak minimizatzea ahalbidetzen duena, ikusmen artifizialeko teknologien bitartez detekzioa eta aurreikuspena landuz, gidaritza fidagarriagoa lortzen laguntzeko.

Sistemak honako hauek izan ditzake:

- Oinezkoak, txirrindulariak eta motozikletak hautematen ditu.
- Mugimenduan nahiz aparkatuta dauden ibilgailuak eta oztopoak hautematen ditu.
- Zirkulazio seinaleak hautematen ditu.
- Segurtasun tartea kalkulatzeko.
- Nahigabe egindako errail aldaketak hautematen ditu.
- Abiadura mugen gainean oharra egiten du.
- Eta garrantzitsuagoa dena, gidaria nekatuta edo arreta galduta dagoela hauteman eta abisatzen du.

Nekea eta arreta falta hauteman eta abisatzea da elementu bereizgarria gainerako produktu konbentzionalekin konparatuta. Begien, betazalen eta buruaren mugimenduei begiratu eta gidaria mugimendu arriskutsuak egitera eraman dezaketen ekintza ez-ohikoak hautematea da helburua. Halakorik gertatuz gero gidaria ohartarazteko alarmak aktibatzen dira.

Sistemak kamera bat, prozesatzeko gailu bat eta ohartarazle bat ditu, soinuduna edo ikustekoa izan daitekeena, edo biak batera.

Teknologia: etorkizunari begira

Creatio - Ikerketa eta Garapen Zentroa

Teknologiaren eta berrikuntzaren alde egindako epe luzerako apustu estrategikoak Creatio - Irizarren Ikerketa eta Garapen Zentroa sortzea ekarri du, Irizar Taldeak ikerketa aplikatuan eta garapen teknologikoan dituen gaitasunak indartzeko, bai firmaren produktu osoei bai karrozerietako osagai nagusiei dagokienez.

Teknologia zentro hau joan zen urrian eratu zuten Irizarrek, potentzia elektronikan diharduen Jemak eta garraioaren kudeaketarako ITS soluzioak (Intelligent Transport Solutions) lantzen dituen Datik enpresa teknologikoak. Hori guztia, Irizarrek 2009an hasitako dibertsifikazio industrialaren politikaren emaitza da. Izan ere, politika horren helburua bikoitza da: jarduera indartzea eta, garatzeko potentzial handikoak diren sektoreetan sartuz -esaterako, energia, elektronika eta komunikazioen sektoreak- arriskuaren kontzentrazioa minimizatzea.

Creatiok aipatutako konpainietatik datozen sinergiak eta gaitasun teknologikoa biltzen ditu, eta hori honako ikerketa ildoetan gauzatzen da: propulzioan, elektromugikortasunean, energiaren sorkuntza eta biltegitratzean, ibilgailuetarako karga sistemetan, ITS sistemetan, eta baita tradizionalagoak diren beste alor batzuetan ere, esaterako sistemen integrazioan. Era berean, Creatiok laguntza sendoa emango dio Taldeari autokar integral eta elektrikoaren garapen berrietan.

Creatio funtsezkoa da gure etorkizunerako, berrikuntza epe luzerako ikuspegiarekin lantzeko, Taldearen lehiakortasun iraunkorraren hobekuntzan eta gure jarduera alorretan aberastasuna eta enplegua sortzen duen hazkundean pentsatuz.



Marka

Irizar markaren irudi berria

Irudi berriak azken urteetan izan duen aldaketa handiari erantzuten dio, izan ere, azken urteotan Irizar erreferentziatzeko marka bihurtu da nazioartean.

Imagotipoari (sinboloa) irudi gaurkotuagoa eman zaio, Irizar produktuen diseinuko ezaugarriaren ildoekin bat datorrena, eta elementu nagusia izaten jarraitzen du. Bere bereizgarri nagusiak eta ezaugarri guztiak lehengo berak dira. Barruko piezek esanahi bikoitza dute; alde batetik, Irizar hitzaren "i"-a adierazten dute, eta, bestetik, autokarrean doan pertsona bat, eserlekuan bermatuta, besarkatu, babestu, heldu eta segurtasuna ematen dion pieza bat irudikatuz.

Zirkuluak barruko pieza biak inguratzen ditu, eta inguruko pertsonak, bezeroak eta bidaiariak irudikatzen ditu, hitz batean, inguruan duen mundua.

"Irizar Type" tipografia berria, bakarra eta pertsonalizatua da, eta Neo Sans Family letra tipoan oinarrituta dago, erraza, garbia eta hurbila izateaz gain, Irizarren diseinuen indarrarekin.

Aukeratutako koloreen artean proposamen berriak gehitu dira; altzairu urdina, teknologiaren, ezagutzaren, sendotasunaren, finkotasunaren eta dotoretasunaren adierazgarria.

Eta berdea, harmonia, hazkundera eta freskotasuna adierazi ez ezik, naturarekin eta ekologiarekin oso Sotuta dagoena eta ingurumenarekin dugun konpromisoaren adibidea den autokar elektrikoa adierazten duena.

Horixe da gaur eguneko Irizarren irudia; kanpoan hazten ari den Irizar, dibertsifikatuz hazten ari dena eta bere berrikuntza zentroarekin batera bere teknologia ikertu eta hobetzen ari dena. Etorkizunari begira dagoen Irizar, ikuspena duena, beti aurrerapen berriak sortzen eta

eskaintzen ari dena. Etorkizuna, elkarrekin izango dituen teknologia, elektronika, telekomunikazioa, berrikuntza, ingurumenaren eta gizartearen aldetiko iraunkortasuna, aniztasuna eta mugikortasuna, besteak beste.

Irudi berria, azken finean, etorkizunean gurekin joango den irudia izatea nahi dugu, gero eta haratago iristeko bidean, pausoz pauso aurrerantz, pertsona eta kolaboratzaile guztiarekin batera. Markaren esentzia jasotzen du; gure geneetan dagoen etorkizunerako orientazioa, orain gure irudiaren parte bihurtu dena, jasotzen du. Irizarren sinbolo berria gure balio guztien kontzeptualizazioa da eta bere jatorria etengabeko eboluziotik dator, bezeroarekiko hurbiltasunetik, gure produktuen pertsonalizaziotik eta Irizar familia osatzen duten pertsona guztien etengabeko ekinetik.



Berrikuntza

Irizar i3 merkaturatzea

Irizarrek Irizar i3 autokar berria aurkeztu zuen FIAA azokan. Autokar modelo horrekin Irizarrek gaur egun duen autokarren gama osatu du, eta autokar batean oinarrituta sortuta egoteagatik i4 autobusak betetzen ez zuen nitxora helduko da.

Modelo hori guk orain arte ase ezin izan ditugun bezeroen premietan pentsatuta sortu da. Produktu funtzionalagoaren bila haiekin batera egin ditugun gogoetatik jaio da, Low Entry gama berme osoz estaltzeko asmoz.

I. klasean homologatzeko aukerarekin Irizarrek Espainian eskaintzen duen lehen autokarra da.



Berrikuntza

Irizar i6 modeloa munduan zehar

Australia

Australiako aurkezpen ofiziala 2010eko uztailean egin zen Melbournen, 13.4 eta 14.5 metroko bertsioen prototipoekin eta Australiako ADR homologazio arau zorrotzak betez.

Hegoafrika

Ekitaldia joan zen abuztuaren 29an izan zen Centuri3n hirian eta Brasiletik zuzenean inportatutako 14 metroko bi unitate egon ziren bertan.

Brasil eta Hego Amerikako herrialdeak

Brasilgo eta Hego Amerikako bezeroen, prentsa espezializatuaren eta merkatuko laguntzaileen aurrean egindako aurkezpen ofiziala Expoonibus azokaren esparruaren baitan gauzatu zen, urriaren 3tik 5era bitartean, Rio de Janeiroko "Riocentro" Erakustazokan, eta bertan Irizar i6 modeloko 4 ibilgailu berri aurkeztu ziren, bertsio desberdinetan.

Mexiko

i6 berriaren aurkezpen ofiziala azaroaren 8an egin zen Mexiko Hiriko Polyforum Siqueirosen, eta bidaiarientzako eta turismorako autogarraioren arloko enpresa garrantzitsuenetako zuzendariak izan ziren bertan.

Berrikuntza

Bidaiarien erabilgarritasuna

Bai bidaiarien erabilgarritasunak bai espazioen handitasunak garrantzi handia hartu dute; hori dela eta, azken urteotan berrikuntzak egiten ari dira alor horietan, bidaiariei ahalik eta konfortik eta erabilgarritasunik handiena eskaintzeko helburuz.

Aurreko atetik sartzeko plataforma

Irizarrek prest du dagoeneko elbarriak i6 autokar modeloaren aurreko atetik sartzeko landu den plataforma. Horri esker, mugikortasun txikiko pertsonak gainerako bidaiariek erabiltzen duten ate beretik sartu ahal izango dira autokarrean; hala, bereizkeria oro saihestuko da eta gidariak ez du bere postua utzi behar izango plataforma manipulatzeko.

Atzeko ardatzeko plataforma bertikala

Aukera honi esker, atzeko ardatzean plataforma bertikal bat munta daiteke eta horrek maletategiaren ahalmena optimizatzea ahalbidetzen du.

Erdiko ointokiko plataforma

Plataforma soluzio hau hiriarteko segmenturako i4 autokar modeloan baino ezin da muntatu eta plataformaren erabilera intentsiboa ahalbidetzen du, irisgarritasun bikainarekin.

Erdiko maletategiko plataforma


Elbarrientzako igogailu bat da, azken belaunaldikoa, erdiko maletegian kokatzen dena eta goialdean ate bat duena mugikortasun txikiko pertsonak baino ez dezan erabili.



Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Konpromisoa bezeroekin

Gure estrategia nagusia bezeroak gogobete eta leialtzea da, Irizar markarekiko ahalik eta konfiantzarik handiena sortzeko helburuz. Ildo horretan, beste urte batez bai joerak bai gure bezeroek zerbitzuari eta Irizar markari buruz egiten dituzten balorazioak aztertu ditugu, etengabeko hobekuntza xede.



Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Lehiakortasun iraunkorra

Hiri autobus %100 elektrikoa

Hiri autobus %100 elektrikoa eta zero igorpenekoa garatzeko proiektua, une honetan, lehiakortasun iraunkorarekin hartua dugun konpromisoaren zutaberi adierazgarriena bihurtu da.

Berrikuntzaren mugari honen bidez, behin betiko bultzatu nahi dugu autobusa, hiri inguruneetan pertsonen garraio masiborako aukerarik onena delakoan; eta era berean, Irizar Europako abangoardia teknologikoan kokatu nahi dugu, %100 elektrikoa eta zero igorpenekoa izango den hiri autobus honekin.

IEB (Irizar Electric Bus) proiektuaren erronka nagusia autobus elektriko bat garatzea da, gaur egungo ibilgailu konbentzionalen eta hibridoen aurrean lehiakorra izango dena; gainera, hainbat arlotako erronka teknologikoak gainditu nahi ditu, hala nola autoeuste egitura, trakzio sistema, energia sortu eta biltegitratzea, kontrol sistema multiplexatuak, komunikazioak eta ustiapenerako laguntza sistemak.

Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Konpromisoa ingurunearekin

Beninen eskola bat eraikitzeko proiektua

Herriak Elkarlanean elkartearen eskutik, Boukomben (Benin) haurrak eskola garaian barnetegi batean egoteko eraikin bat egin dugu, haur horiek distantzia luzeak egin behar izaten dituzte eta egunero eskolara joateko. Eskolak 3 eta 13 urte bitarteko 300 haur har ditzake. Seme-alaben etorkizunagatik arduratuta zeuden gurasoek eskatuta, eskola honek 15 kilometro inguruko erradio baten barruan dauden herrixketatik datozen haurrak hartzen ditu.

Halatan, haurron oinarrizko heziketa, elikadura, osasun eta higiene beharrei erantzutea lortu dugu.

Irizarren eta Tecnumen arteko lankidetzaren hitzarmena (Nafarroako Unibertsitatea)

Irizarrek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu du SEED Groupekin. Hitzarmen horren arabera, Eskolako ikasleek urteroko Formula Student Electric lehiaketarako jarleku bakarreko ibilgailu bat fabrikatu eta garatzeak ekarriko dituen gastuen zati bat diruz lagunduko du kooperatibak.

Hala, Irizarrek etorkizuneko ingeniariaren ikaskuntza bultzatzen du, gaitasun egokiak bultzatuz eta ingurumena errespetatzen duten proiektu teknologikoak babestuz.





Zumarraga Bidea, 8. 20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa), ESPAÑA. Tel.: (+34) 943 80 91 00 / Fax: (+34) 943 88 91 01
irizar@irizar.com / www.irizar.com